

153. FITXA GIPUZKOA – Etorkizuna Eraikiz-Misioak 2025 programako elikadura jasangarriaren eta mugikortasun berriaren misioetara bideratutako proiektu berritzaileentzako dirulaguntzak

Nori zuzendua: unibertsitateak, lanbide-heziketako zentroak, elkarteak, fundazioak, enpresak, **udalak, mankomunitateak, garapen-agentziak** eta/edo interes ekonomikoko taldeak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Elikadura jasangarriaren eta mugikortasun berriaren misioetara bideratutako proiektu berritzaileak Etorkizuna Eraikiz - Misioak 2025 programaren dirulaguntza lerroaren oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia](#)

Eremuak: Jasangarritasuna.

Zenbatekoa: 800.000 €.

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/30 (12:00etan).

Laburpena

Dirulaguntzaren xedea da lankidetzazko logikaren arabera egindako **berrikuntza-proiektuak** finantzatzea. Proiektu horien helburua izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako **elikadura jasangarriaren eta mugikortasun berriaren misioen** esparruan identifikatzen diren erronkak konpontzea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Proiektuek honako erronka honi erantzun beharko diote:

A) Elikadura jasangarriaren misioa:

- Lurraldeko tokiko ekoizpen primarioaren potentziala maximizatzea.

B) Mugikortasun berriaren misioa.

- Garraio intermodala eta irisgarria bultzatzea.
- Mobility as a Service (MaaS); pertsonak ardatz dituzten mugikortasun-eredu berriak.

- Eredue elektriko eta iraunkorrago baterantz igarotzea.
- Mugikortasun konektatua bultzatzea.

Parte hartzeko eskabideak **taldeka** aurkeztuko dira. Taldeak **gutxienez bi entitatek** osatuko dituzte.

Ondorio horietarako, eskaera bat taldean aurkeztutzat har dadin, huraosatzen duen entitate bakoitzaren gutxieneko partaidetzak kostu hautagarriaren % 20 izan behar du.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduketak **2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko irailaren 15era bitartean** gauzatu beharko dira. Justifikazio-kontu partziala 2025eko azaroaren 14a baino lehen aurkeztu beharko da, eta jarduketen gauzatze osoa egiaztatzeko azken kontua, berriz, 2026ko urriaren 15a baino lehen.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektuak gutxienez **90.000 €** izango ditu diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuan.

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren **% 100** izan daiteke, eta gehienez **125.000 €** proiektu bakoitzeko.

Intereseko beste alderdi batzuk

Misioei buruzko dokumentazio gehigarria honako web-orri hauetan kontsultatu ahal izango da:

Elikadura jasagarria:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/LIAIzapideakWEB/api/v1/documento/2953>

Mugikortasun berria:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/LIAIzapideakWEB/api/v1/documento/2951>

Deialdiaren aurkezpen orokor bat telematikoki egingo da, Teamsen esteka baten bidez. Esteka hori deialdi hau argitaratu eta lehen astean hala eskatzen dutenei bidaliko zaie.

Aurkezpen horretan, interesdunek deialdiaren inguruko zalantzak argitu ahal izango dituzte.

Horretarako, parte hartuko duten pertsonen eskatzen zaie mezu elektroniko bat bidal dezatela **estrategia@gipuzkoa.eus** helbidera, gaian «Etorkizuna Eraikiz - Misioak 2025» deialdia aipatuz.